“Agur Elementala, Kaixo Miguel Altuna” kanpaina aurkeztu du Miguel Altunak

Eraikin eta marka berria dira prozesu berri honen giltzarriak

Miguel Altuna Lanbide Heziketak marka eta eraikin berriaren proiektuaren aurkezpen ekitaldia egin du, Elemental zaharretik, aukeraz beteriko prozesu batera salto egiteko.

Eskolako ordezkariek eskerrak emanez hasi dute aurkezpena, eskolaren ibilbide, garapen berri honetan parte-hartu duten pertsonen ekarpenak aitortzen.

Gainera, nabarmendu dute 2018. Urtean Miguel Altunak 90 urte betetzen dituela eta kanpaina hau etorkizuna eta iragana lotzeko zubia izango dela.

Eraikin berria

Eraikin berriaren aurkezpena izan da ekitaldiaren punturik nabarmenetarikoa. 2018. urtean, Miguel Altuna lekuz mugituko da eta berrikuntzaz beteriko espazioak prestatzen daude orain. Eskolako ordezkariek eraikin berriak izango dituen ezaugarriak azpimarratu dituzte:

- 9719 m^2 (oraingo eraikinaren ia bikoitza), bi eraikinetan banatuta.
- Aurrekaldeko eraikina, **eraikin nagusia** (3329.36 $m^{2)}$, erdisotoan, 200 pertsonentzako lekua izango duen aretoa eta jantokia (irakasle eta ikasleentzat) izango dira; 0 solairuan, zerbitzu orokor, irakasle gela eta bilera gelak; eta, azkenik, lehenengo solairuan, administraritza alorreko heziketa zikloetarako espazioak egongo dira.
- Atzealdeko eraikina, **eraikin teknikoa** (6335.44m^2) bi zatitan banatzen da: gela teknikoa eta tailerrak.

  Eraikin teknikoari dagokionez, gela teknikoz osaturiko lau pisutan banatzen da. Hauek berariazko ekipamendu teknikoz hornituak eta erronketan oinarrituriko metodologia garatzeko prestatuak egongo dira. Era berean, Industria 4.0 delakoan oinarritutako hainbat teknologia uztartuko dituen gela berezia ezarriko da. Gela honetan erabilpen interdisplizinarreko ekintzak sustatu nahi dira, ziklo desberdinetako ikasleek erabiltzeko moduko gela izango da, industrian erabiltzen diren antolakuntza ereduak ikastetxean txertatuz.

  Tailerren espazioari dagokionez, ziklo desberdinetako tailer guztiak zona komun zabal batean kokatuko dira, 2062 m^2 -tan pareta bakar bat izango delarik.

Irudi berria

Esan bezala, prozesu hau pizteko, Miguel Altunak bere irudi korporatiboa berritu du eta horri buruzko nondik-norakoak azaldu dituzte hitzaldian. Bertan azaldu dute logoa osatzen duten “m” eta “a”-ren zentzua eta irudiak hartzen duen indar eta sinesgarritasuna. Koloreei dagokionez, mahoi kolorea ez dute ahaztu Bergaratarrek, nortasun eta erroen adierazgarri.

Leloa ere asmatu dute, baina ez da nolanahi aukeratutakoa: “Zure zubia” kontzeptuaren bidez Miguel Altuna Lanbide Heziketa era guztietako pertsonentzat ibilbide profesionaleko leku desberdinak lotzen dituen zubia izan nahi du. Gainera, Elemental zaharrean ikurra zen zubia, eraikin berrian ere mantenduko dute.